

Goi eta erdi-goi teknologiako sektoreak ekonomiaren balio erantsiaren % 8,8 sortu zuen Euskal AEn 2019an

Sektore horrek 4.927 enpresa eta 94.777 lanpostu biltzen ditu

Eustatek landutako datuen arabera, goi eta erdi-goi teknologiako sektoreak ekonomiaren balio erantsi gordin osoaren % 8,8 sortu zuen Euskal AEn 2019an. Oinarri teknologiko sendoa duten eta ezagutzak bizkor berritzen dituzten jarduerak biltzen dituen sektore horrek 94.777 lanpostu sortu zituen, guztien % 8,6. Jarduera horiek 4.927 enpresatan egin ziren, eta 22.430,2 milioi euro fakturatu zituzten.

Espainiarekin alderatuta, Euskal AEn goi eta erdi-goi teknologiako sektoreak enpresen % 5,5 biltzen ditu, eta BEGren % 8,3 sortu zuen. Goi eta erdi-goi teknologiako sektoreak manufaktura-industrian du pisurik handiena, eta enpresen % 7,2 eta balio erantsiaren % 11 biltzen ditu.

Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak, lurralde eta jarduera sektoreen arabera, 2019

	Enpresa kopurua (1)	Landun kopurua	Negozio kopurua (2)	Balio erantsia (2)
Goi-teknologiaren sektorea	4.927	94.777	22.430.228	7.010.523
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	709	16.623	6.530.680	1.189.751
Bizkaia	2.596	36.594	7.025.365	2.796.171
Gipuzkoa	1.750	41.560	8.874.183	3.024.601
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	1.532	66.385	19.004.376	4.913.599
Goi-teknologia	188	10.466	2.758.621	879.750
Goi-ertain teknologia	1.344	55.919	16.245.755	4.033.849
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	3.395	28.392	3.425.852	2.096.924

(1) Baliteke enpresa-kopuruaren lurralde-batura ez etortzea guztizko kopuruarekin

Jarduera duten lurralde historiko bakoitzean behin zenbatu dira, eta EAE osoan behin bakarrik.

(2) Miliaka eurotan

Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gora egin dute bai enpresen kopuruak (+% 0,9) bai lanpostuen kopuruak (+% 1,4). Horrela, 2019an 19,2 landun zeuden jarduera horretan diharduten enpresetan, aurreko urtean baino gehiago (19,1). Bestalde, negozio-zifra % 5,1 igo zen eta balio erantsia % 3,4.

2019an sektore horrek I+Gko enpresako barne-gastu osoaren % 72,0 egikaritu zuen eta I+G egin zuten enpresen % 44,3 bildu zuen.

Goi eta erdi-goi teknologiako sektorean, enpresen % 12,5ek I+Gko jarduerak egiten dituzte, eta ehuneko hori sektore guztietarako dena (% 1,0) baino askoz ere handiagoa da. Gainera, sektore horrek, enpresa guztien % 3,3 hartzen dituela kontuan hartuta, enpresa-sektorean I+G egiten dutenen % 44,3 biltzen ditu eta, 812,9 milioi euroekin, enpresa-sektoreak I+Gn egindako barne-gastu osoaren % 72,0 egikaritzen du.

Sektore horretan I+Gra bideratutako langileei dagokienez, 2019an 9.503 enplegatu izan ziren “dedikazio osoko baliokidetzan”, enpresa-sektoreak I+Gra bideratzen dituen langileen % 68,3, edo % 48,4 sektore guztiek jarduera horietara bideratzen dituztenekin alderatuz gero. Emakumeak, 3.083, % 32,4 ziren. Dedikazio osoko baliokidetzan ziharduten langile guztietatik 6.159 ikertzaileen kategoriakoak ziren, eta emakumeak 2.014 ziren, % 32,7.

Euskal Aeko goi teknologia sektorean I+Gn ari diren establezimenduak eta D.O.B. langileak, lurralde historikoaren eta jarduera ekonomikoaren arabera, okupazioa eta sexuari jarraiki. 2019


	Establezimendu kopurua	Langileak			Ikertzaileak		
		Guztira	Emakum eak	Emakum eak %	Guztira	Emakum eak	Emakum eak %
I+G Guztira	1.462	19.619	7.184	36,6	13.520	4.909	36,3
Enpresa sektorea I+G	1.395	13.915	4.316	31,0	9.046	2.857	31,6
Goi eta goi-ertain teknologia I+G sektorea	618	9.503	3.083	32,4	6.159	2.014	32,7
Lurralde Historikoa							
Araba/Álava	91	892	305	34,2	607	195	32,1
Bizkaia	247	3.391	1.223	36,1	2.190	794	36,3
Gipuzkoa	280	5.220	1.555	29,8	3.362	1.026	30,5
Goi eta goi-ertain teknologiaren manufaktura-industria	306	3.355	778	50,4	1.861	468	52,5
Goi teknologia	60	884	261	29,5	578	170	29,3
Goi-ertain teknologia	246	2.471	517	20,9	1.283	298	23,2
Goi teknologia edo teknologia puntako zerbitzuak (p)	312	6.148	2.304	37,5	4.298	1.547	36,0

D.O.B.= Dedikazio Osoko Baliokidetzak

Iturria: Eustat. Goi teknologiaren sektorearen estatistika

Berrikuntzari dagokionez, I+Gn gertatzen den bezala, alde nabarmenak daude sektore guztien eta goi eta erdi-goi teknologiako sektoreen artean. Horrela, 2019an sektoreko establezimenduen % 45,4 berritzaileak izan ziren, eta sektore guztietan % 18,2 izan ziren. 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan ehuneko horiek % 67,8ra iritsi ziren lehenengo kasuan, eta % 30,8ra bigarrean.

I+G+b goi-teknologiako enpresetan eta sektore guztietako enpresetan (%). 2019



Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

2019an goi eta erdi-goi teknologiako establezimenduek 1.516 milioi euro bideratu zituzten berrikuntza-jardueretara, sektore guztien guztizko gastuaren % 52,4. Gastu horretatik 1.381 milioi 10 langile edo gehiagoko establezimenduei dagozkie, hau da, tamaina horretako enpresek jarduera horretan gastatutako guztizkoaren % 56,4.

I+G-b-rako baliabideen proportzioa eta sektore horretako merkataritza elektronikoa sektore guztien batezbestekoa baino handiagoak izan ziren

Agerikoa da, halaber, goi eta erdi-goi teknologiko sektoreak gainerako sektoreek baino baliabide-proportzio handiagoa bideratu zuela I+G-b-ra, “berrikuntzako” eta “barneko I+G-ko” intentsitate-ratioak ikusita; hau da, sektore horrek gastura bideratzen dituen zifrak, bai berrikuntzan bai I+Gn, negozio-zifren aldean. Zehazki, *berrikuntzaren intentsitatea* sektore horretan % 5,78koa da, eta sektore ekonomikoen guztizkoan % 1,59koa. Barneko I+Gren kasuan ratioa % 3,36 da sektorean eta % 0,81ekoa guztizkoan.

Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta barne I+G intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2019

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektore guztira	1,59	0,81	2,08	1,19
Goi-teknologiaren sektorea	5,78	3,36	5,81	3,53
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	3,27	1,11	3,40	1,16
Bizkaia	7,94	4,22	8,00	4,57
Gipuzkoa	5,35	3,94	5,40	4,11
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	3,22	1,50	3,34	1,56
Goi-teknologia	6,34	2,11	6,53	2,17
Goi-ertain teknologia	2,61	1,38	2,70	1,43
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	15,13	10,18	18,15	13,42


(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Iturria: Eustat. Goi teknologiko adierazleen panela

Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien (IKT) eta merkataritza elektronikoen erabilera sektoreen guztizkoan baino hedatuagoa dago sektore honetako enpresetan. 2019an sektore horretako establezimenduen % 50,9k erosketak elektronikokoak egin zituzten, eta sektoreen guztizkoan, aldiz, % 24,7k. Era berean, teknologiko sektoreko establezimenduen % 15,6k egin zituzten salmenta elektronikokoak, eta sektoreen guztizkoaren kasuan, aldiz, % 7,0k. Horren ondorioz, “merkataritza elektronikotzat” hartzen duguna % 53,8 da goi edo erdi-goi teknologiko sektoreko establezimenduetan, eta establezimendu guztietarako % 27,1ekoa da merkataritza mota hori.

IKT erabilpena Euskal AEn (%). 2019



Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

Bestalde, sektore horrek ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da bereziki esanguratsua. Esportazioak 858,4 milioi euro izan ziren, guztizko 25.485,8 milioien aldean; inportazioak 741,7 milioi izan ziren, inportaturiko guztizko 20.158,7 milioietatik. Kopuru horiek esportazio eta inportazio guztien % 3,4 eta % 3,7 dira, hurrenez hurren.

Truke horietan ohikoenak diren produktuen artean eta esportazioetarako, honako hauek nabarmentzen dira: “Makineria eta tresneria mekanikoa” (% 39,7), “Aireontziak eta espaziontziak egitea” (% 18,9) eta “Material elektronikoa, irrati, telebista eta komunikazioetako ekipo eta aparatuak” (% 14,5). Inportazioetan nabarmentzekoak dira “Material elektronikoa, irrati, telebista eta komunikazioetako ekipo eta aparatuak” (% 41,1), “Lanabes zientifikoak” (% 18,6) eta “Aireontziak eta espaziontziak egitea” (% 13,8).

Goi eta erdi-goi teknologiako sektorearen negozio-zifra % 28,1 igo da 2010etik

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, 2010etik sektore honen tamainak etengabe egin du gora azken bost urteotan, hau da, 2015etik.

Horrela, sektorearen negozio-zifra 16.800 milioi eurotik gorakoa da 2010etik, 2018an 21.300 milioi gaindituta, eta 2019an 22.430 milioiko errekorra iritsi da, hau da, 4.918 milioi euro gehiago 2010aren aldean, % 28,1 gehiago.

Aldi berean, goi eta erdi-goi teknologiako enpresetako enplegatuen guztizko kopuruan 3.263 enplegatu gehiago daude, eta 2011tik 2017ra 90.000tik behera zeuden. Hala ere, azterketa honen azken urteko guztizko kopurua 94.777 enplegatura iritsi da, 2010ean erregistratutakoa baino % 3,6 gehiago.

Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak. 2010-2019

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
2019	4.927	94.777	22.430.228	7.010.523
2018	4.881	93.458	21.336.764	6.777.987
2017	4.789	89.710	20.306.692	6.516.869
2016	4.852	87.727	19.198.452	6.251.960
2015	4.787	85.100	17.696.422	5.989.997
2014	4.745	84.419	16.872.644	5.746.375
2013	4.718	86.571	17.085.535	5.806.417
2012	4.646	87.746	17.847.872	6.134.652
2011	4.742	89.726	18.748.825	6.373.258
2010	4.830	91.514	17.511.934	6.106.721

(1) Milaka eurotan

Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela

Era berean, azken 10 urteotan goi eta erdi-goi teknologiako enpresen kopurua 4.600eko atalasearen gainetik mantendu da, Euskadiko enpresa guztien % 3 inguruko ehunekoarekin, 2010ean % 2,9 izatetik 2019ean % 3,3 izatera igarota. Ikusten denez, portzentajezko hazkunde txiki bat izan da, eta 2010ean baino 97 enpresa gehiago daude sektorean.

Azkenik, balio erantsi gordinak 904 milioiko igoera izan du 2010. urtearekin alderatuta. Urte horretatik aurrera 5.700 milioitik gora mantendu da, eta 2019an beste errekor bat lortu du, 7.011 milioi eurokoa (2010ean baino % 14,8 gehiago).

Metodologia-oharra:

Goi-teknologian sartzen diren sektoreak dira: duten konplexutasun-mailagatik ikerkuntzan etengabeko ahalegina eta oinarri teknologiko sendoa behar dutenak. Sektore honek biltzen dituen jarduerak, 2009 EJSNren arabera, hemen daude jasota: [Web Eustat. Fichá metodológica: Estadística del sector de alta tecnología](#)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62